



Indarraren erabilpenak «nazioarteko zuzenbidearen porrota» azaldu du

Mundu mailako liderrak diplomaziaren porrotarengatik «penatuta»

Mundu osoko zenbait mandatarik azpimarratu dutenez, nazioarteko zuzenbidearen porrota adierazten du Golkoko gerra pizteak. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Iraki emandako ultimatumak bete eta 18 ordura hasi zen eraso. Ultimatumaren ondorioa, gerra, nazioarteko komunitatearen «derrota» da, lorpena beharrean, Aita Santuak berak aipatu duen bezala.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Indarra, Aita Santuaren eritziz, ez da nazioarteko arazoak konpontzeko bidea, «inoiz ere ez zen izan eta ez da izango».

Atzo eguardian publiko egindako deklarazio batean, Joan Paulo II Aita Santuak une horietan sentitzen zuen «atsekabe sakona» azaldu zuen Vatikanon. Gerraren hasiera «nazioarteko zuzenbide eta komunitatearen derrota larria da», azpimarratzen zuen Aita Santuak adierazpen horretan. Bagdad gainean eraso hasi bezain laster, atzo goizaldean, bere kapila pribatura joan zein Joan Paulo II.a otoi egitera, Vatikanon informatu zuten. Aldi berean, «hasitako lehenbailehen amai dadin» espero du Juan Paulo II.ak.

Italian baita ere, Giulio Andreotti lehen ministroak, gai bera ukitu zuen Senatuaren aurrean egindako hitzal-



Perez de Cuellar, larri eta penatuta, kazetariekin New York-en.

REUTER

dian. Golko Pertsikoko krisialdi era baketsuan konpontzeko ezintasuna, nazioarteko ordena juridikoaren porrota azaltzen du, Andreottiren eritziz.

Hala eta guztiz, lehen ministroak Italia gerran sartzeko baimena eska-

tu zion legebiltzarrari, eta baita lortu ere. Oposizioak, hala ere, gobernuak bakea lortzeko egin behar zen guztia ez duela egin salatu zuen Erromako senatuan.

Erasoaren kontrako tonu kritikoa, Fidel Castro Cubako

✓ Aita Santuaren eritziz, indarra, «inoiz ere ez zen izan eta ez da izango» nazioarteko arazoentzat konponbide.

lehendakariak, gerraren hasiera «frakaso» zela aipatu zuen prentsaurrekoan. «Frakaso, arazoak era baketsuan konpontzeko nazioarteko erakundeen eta politikoen ezintasuna demostratzen duelako», esplikatu zuen. Hirugarren Munduko ekonomia-erantzut gerrak ekar ditzakeen ondorio txarrak ere azpimarratu zituen Castrok.

NAZIO BATUEN PAPER Cuba izan zen, Iemenekin bat, ultimatumaren 678 eabazpenaren kontra azaldu zen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko estatu bakarra. 678 eabazpenaren testuak hauxe zioen: «Baimena ematen die Kuwaiteko gobernuarekin elkarlanean diharduten Estatu kideei (...), beharrezkoak diren medio guztiak erabiltzeko». NBEko Idazkari nagusiak, Javier Perez de Cuellar-ek, eraso gertatu baino ordubete lehenago jakin zuen 'Basamortuko Ekaitza' hastear zegoela, Bush lehendakariak esanda. «Oso atsekabetuta eta penatuta nago, gerra aurrean daukagulako, nahiz eta nik eta beste nazio askotako pertsonaia askok irtenbide baketsuaren aldeko ahaleginak egin», esan zuen Perez de Cuellarrek.

Herrialde musulmanak zatiturik daude erabat gerraren aurrean

XABIER ZABALZA / DONOSTIA

Israeli begira zeuden misil irakiarren suntsipenak, biziki lasaitu du giroa Jordaniar. Irakek ekin izan balio gerrari Israelen kontra, Jordania izanen zatekeen gerratokia. Arabiar herrialdeek uko eginen zioten Israelen alde borroka egiteari eta luzatu eginen zatekeen gerraldia.

Moteldu egin ziren atzo Saddam Husseinen aldeko manifestaldiak Amman-en. Emititzeari utzi egin zioten Jordaniako irratiek Bagdaden bonbaketa berri izatean. Lehenbiziko momentuetan ez zen adierazpen ofizialik izan. «Gure anaia Irak Estatu Batuek egin erasoaren biktimak da», esan zuen bertako irratik ofizialak berremittitzeari ekitean. Hussein jordaniar erregeak, bestalde, bakea oraindik posible dela esan zuen atzo.

Adierazpen ofizialik ez atzo **Sirian**. Astindura eta Iraken erantzunaren beldurra izan ziren nagusi egun osoz. Iraken tresneria militarren suntsipenagatik ahunak ere somatu ahal ziren, Irakeko armada Israeli aurre egiteko beharrezkoa da eta. Saddam Hussein da gerraren

errudun nagusia gobernuan dagoen Baaz partiduaren egunkari ofizialaren arabera. «Inork ezin dezake negarrik egin Irakeko gobernamenduagatik». Sana agentzia ofizialak eta Dimaxk Irratiak Georges Bush EEBBetako lehendakariaren diskurtso osoa emititu zuten. Hala ere, Siriak Bagdaden bonbaketa parte hartua izatea gezurtatu egin zuen Tehran-eko siriar enbaxadoreak, SPA Saudi Arabiako agentziak esandakoari ukoa eginez.

IRAN: ISLAMAREN ZATIA KATASTROFE

«Katastrofe historikoa» deitu zion atzo Hachemi Rafsanyani **Iran-eko** lehendakariak gerraren hasierari. «Harroak, Estatu Batuek zuzendurik, gure baliabideak suntsitzen ari dira», gaineratu zuen Rafsanyanik. «Anaia arabiarren arteko harremanak konpondu egin beharko dira, geroko gertaerei begira» adierazi zuen.

Irakek ez du **Turkia** eraso asmorik azaldu, Turgut Ozal herrialde honetako lehendakariaren arabera. Ankarako Parlamentuari baimena eskatu eginen dio bertako gobernuak gerrari ekiteko. Turkiako gobernuak



Jordaniarrak, janaria pilatzen Amman hiriburuan, gerra hasi bezain laster. AP

oreka bila dabil. Batetik, Iraken zaitketan parte hartu nahi luke gerra amaitutakoan. Bestetik, Bagdaden erasotutako herrialdeko hegoaldean izan dezaketen eraginaren beldur da. Incirlik basearen erabiltzea eska lekiekeela EEBBei adierazi zuen Yildirim Akbulut lehen ministroak.

Kuwait-en eta ez beste inon egin dezatela gerra, eskatu zion atzo Muammar al Gaddafi **Libia-ko**

iraultzaren buruzagiak, Javier Perez de Cuellarri, NBERen idazkari nagusiari, eta Guido de Marcori, Biltzarre Orokorraren lehendakariari, igorri mezuetan. Gaddafiren arabera, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak hartu xedapenak anexionatutako emirgoan esku sartzeko ematen die nazioarteko indarrei soilik. Bagdadek sufritu bonbaketa aurka zen Gadaffi.

Gorbatxov:
«Atsekabetuta nago gerrarik ez izatea lortu ez dugulako»

GORKA ARRESE / DONOSTIA

«Bart gauean hasi zen gerra Golko Pertsikoan» esanez hasi zuen atzo Mikhail Gorbatxov-ek Soviet Batasuneko herri-telebistaz luzatutako mintzaldia. «Agintari irakiarrek euren tropak Kuwaitetik erretiratzeko Nazioarteko Komunitatearen agindua bete ez dutelako gertatu da tragedia» jarratu zuen. «Atsekabetuta nago gerrarik ez izatea lortu ez dugulako, nahiz eta ahal genuen guztia egin dugun, gatazka, bitarteko militarrik gabe konpon zedin».

Telebistaz hitzegiten hasi artean, Iraken dauden sovietarretarik inork ere ez zuela kalterik izan adierazi zuen. «Baina tropa eta teknika militarren erabilera handi honek, ikaragarriko kalteak eragingo dizkie herritar arabiar, iparramerikar eta orohar Nazioarteko Komunitateko guzti».

«Sovietar herriak jakin bezala, Soviet Batasuneko agintariok ahal dugun bezainbeste egingo dugula gerra lehenbailehen gera dadin» hitzekin amaitu zuen telebistako agerraldia. Soviet Batasuneko lehendakaria ahalegin diplomatikoetan aritu zen azken unerarte, Saddam Husseinekin harremanetan jarri nahian eta tropa irakiarrek Kuwaitetik erretira zitzan komentutako.

Europako herrialdeak ekintza armatuen beldur

DONOSTIA

Ekintza armatu posibleetatik gordetzeko, barne seguritate neurriak indartu dituzte Golko Pertsikoko gerran parte hartzen ari diren herrialde europarrek.

Erresuma Batuan, Polizia eta Armadako gizon espezializatuek jarri dituzte Londreseko aireportuetan, eta British Airways konpainiak geldierazi egin ditu Abu Zabi, Dubai eta Riad-era iragarritako hegaldiak oro.

Greziar ere neurri handiak hartu dituzte, Estatu Batuetako iturrien arabera, arabiarren ekintza armatuen Europako gune nagusia izan bait liteke. Atenas-erako hegaldi guztiak gelditu egin dituzte konpainia iparramerikarrek.

Suitzako Geneve hirian diplomatiko eta banakari hainbati babes polizia eskaini diote, eta «helburu estrategikoak izan daitezkeenak» zaintzen ari dira. Alemanian, EEBBetako kontsulatuak in-guruak babesturik dauzka. manifestariak egoitza aurreraino hurbil ez daitezken.